

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

161/2020 Foru Agindua, ekainaren 1ekoa, erregularizatzen duena onura publikoko 550 mendian (Goikobaso izenekoa, Erroeta herriarena) kokatua dagoen eta Itelazpi SAK kudeatzen duen igorpen zentroaren okupazioa

Ikusi dira Mendi Zerbitzuaren txostena, onura publikoko 550 mendian (Goikobaso izenekoa, Erroeta herriarena) kokatua dagoen eta Itelazpi SAK kudeatzen duen igorpen zentroaren okupazioa erregularizatzeko espedientea hasteko erabakiaren aurretik egina; AFAko Nekazaritza Saileko Diputatuaren 488/2019 Foru Agindua, onesten duena baso jabari publikoaren okupazioa erregularizatzeko administrazio prozedura hastea; entzunaldiko eta espedientea jendaurrean jartzeko izapidea; eta Erroetako Administrazio Batzarrak, Arraia-Maetzuko Udalak eta Itelazpi SA enpresak aurkeztutako alegazioak.

AURREKARIAK

2018ko urtarrilaren 30ean, Arraia-Maetzuko Udalak, Erroetako telekomunikazio zentroko jarduera erregularizatzeari buruz, jakinarazi zuen Alkatetzaren 12/2018 Ebazpena, zeinean ebatzi baitzen administrazio honi helaraztea onetsitako ebazpena, Ez baita aurkeztu agiririk jabari publikoko lurzuaren titularrak azpiegituren instalaziorako emandako baimenaren egiaztagarri, ez eta Arabako Foru Aldundiaren Mendi Zerbitzuak onura publikoko mendiaren okupaziorako emandako baimenaren egiaztagarri ere.

2018ko urtarrilaren 10ean, Arabako Foru Aldundiaren Mendi Zerbitzuak, Arabako Lurralde Historikoko Mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauaren 24. eta 26. artikuluen arabera esleituta dauzkan eskumenak erabiliz eta, Arraia-Maetzuko Udalak eskatuta, onura publikoko 550 mendian (Goikobaso izenekoa, Erroeta herriarena) kokatua dagoen eta Itelazpi SAK kudeatzen duen "Maeltu-Onraitia" izeneko igorpen zentroaren okupazioaren administrazio emakida onesteko prozedura izapidetuz, ez dagoenez egiaztatuta sozietate horrek mendi hori orain arte bezala okupatzea zilegi egiten duen titulurik, informazioa eskatu zion Itelazpi SARI "Maeltu-Onraitia" telekomunikazio estazioan kokaturik dauden instalazioen eta haien funtsezko elementuen zerrendari buruz, zentro horrek egiten dituen igorpen guztien izenarekin eta ikus-entzunezko zerbitzuen frekuentziekin.

2018ko irailaren 12an, Matxalen Lauzirika Jauregik, Itelazpi SAKo zuzendari nagusi moduan, informazio eskaerari erantzun zion, adieraziz emakida tituluaren zenbait puntu jaso behar liratekeela, okupazioaren erabilera eta gozamen baketsua bermatzeari begira. Lehenengo eta behin, jaso ditzala zentroaren benetako okupazioa eta harekin lotura duten zortasunak (linea elektrikoa, heltzeko bidea eta ibilgailuen maniobra eta aparkamendua). Bigarrenik, okupazioa eta OPko mendiaren titularrak zehazten dituen plano bat izan dezala barnean. Hirugarrenik, babestu ditzala konponketa eta hobekuntza obrak egiteko behar diren aldi baterako okupazioak. Laugarrenik, babestu dezala, halaber, linea elektrikoko zuhaitzi zerrenda 8 metro zabalean garbitzeko lanak egitea eta hara heltzeko bideetatik sastrakak kentzea, baita irrati seinaleak jasotzea edo igortzea galaraz lezaketzen zuhaitzak moztea edo inautzea ere. Bosgarrenik, eskatzen du heltzeko bideen konponketa garrantzitsuak proportzionaltasun araubide baten pean egon daitezela, haien erabilerarekin bat etorritz.

2019ko apirilaren 8an, Gainsa SL enpresak, Mendi Zerbitzuak memoria tekniko-ekonomikoa egiteko kontratatuta, txosten tekniko-ekonomikoa eman zuen: "Maeltu-Onraitia" telekomunikazio zentroak onura publikoko 550 zenbakiko mendia okupatzeko kanonaren kalkulua. Merkatuko

prezioak erkatzeko metodologian oinarrituta, txostenak urtean 4.479,36 euroko kanona kalkulatu zuen telekomunikazio zentroaren egungo egoerarako; haietatik, 4.439,16 euro telekomunikazio zentroaren okupazioari dagozkio eta 40,2 euro hargune elektrikoaren okupazioari.

2019ko urriaren 2an, Arabako Foru Aldundiaren Mendi Zerbitzuak, aldez aurreko jardunen barruan, ondoko hauen inguruko informazio eskaera bidali dio mendiaren jabe den erakundeari:

– Ea Erroetako Administrazio Batzarraren eta Itelazpi SAren artean (lehenengoa, telekomunikazio zentroa dagoen OPko 550 mendiaren titular moduan, eta bigarrena instalazio horien kudeatzaile moduan) kontraturik, akordiorik edo adostasunik dagoen, zilegi egiten duenik azken horrek aipatu den lursaila, Erroeta herriarena, okupatzea.

– Itelazpi SAK gaur egun OPko 550 mendian (“Goikobaso” izenekoa, Erroeta herriarena) okupatzen duen “Maeztu-Onraitia” igorpen zentrotik emandako zerbitzuez herri horrek duen informazio guztia.

– Erroeta herriak igorpen zentro horren inguruan duen beste edozein informazio, aurretik esandakoaz gainera.

2019ko urriaren 29an, Erroetako Administrazio Batzarrak erantzun du, adieraziz Batzar horren eta Itelazpiren artean ez dagoela kontratu, akordio edo adostasunik enpresa horrek aipatu den lursaila okupatzea zilegi egiten duenik. Eta ez duela inongo informaziorik igorpen zentrotik ematen diren zerbitzuez, ez eta zentro horren inguruko bestelako informaziorik ere.

2019ko abenduaren 2an, Mendi Zerbitzuaren txostena, onura publikoko 550 mendian (Goikobaso izenekoa, Erroeta herriarena) kokatua dagoen eta Itelazpi SAK kudeatzen duen igorpen zentroaren okupazioa erregularizatzeko espedienteak hasteko erabakiaren aurretik egina.

2019ko abenduaren 19an, AFAko Nekazaritza Saileko Diputatuaren 488/2019 Foru Agindua, onesten duena administrazio prozedura hastea onura publikoko 550 mendian (Goikobaso izenekoa, Erroeta herriarena) kokatua dagoen eta Itelazpi SAK kudeatzen duen igorpen zentroak jabari publikoa okupatzea erregularizatzeko. Foru agindu hori interesdunei jakinarazi zitzaizen: Erroetako Administrazio Batzarrari, Arraia-Maeztuko Udalarari, Itelazpi SAK eta EAEko administrazio orokorrari.

2020ko urtarrilaren 10ean, jakinarazi zitzaizen interesdunei “Maeztu-Onraitia” izeneko igorpen zentroaren okupazioa erregularizatzeko 85/18 espedientearen inguruko entzunaldiko eta hura jendaurrean jartzeko izapidea.

Erroetako Administrazio Batzarrak, sarrera data urtarrilaren 9a eta urtarrilaren 29a duten bi idazkitan, Arraia-Maeztuko Udalak, sarrera data urtarrilaren 30a duen idazkian, eta Itelazpi SAK, sarrera data urtarrilaren 27a duen idazkian, alegazioak aurkeztu dituzte.

2020ko maiatzaren 11n, Gainsa SL enpresak, Mendi Zerbitzuak memoria tekniko-ekonomikoa egiteko kontratatuta, txosten berri bat aurkeztu du: “Maeztu-Onraitia” telekomunikazio zentroak onura publikoko 550 zenbakiko mendia okupatzeko kanonaren kalkulua, zeinak kanonaren kalkulua eguneratzen baitu, kontuan izanik Erroetako Administrazio Batzarrak egindako erreklamazioak, Itelazpi igorritako informazioa eta hargune elektrikoaren titulartasuna. Txostenak urtean 6.923,61 euroko kanona kalkulatu du telekomunikazio zentroaren egungo egoerarako; haietatik, 5.344,16 euro telekomunikazio zentroaren okupazioari dagozkio eta 1.579,45 euro hargune elektrikoaren okupazioari. Txosten hori proposamen honi erantsita doa.

Zuzenbideko oinarri hauek hartu dira kontuan:

1. Egiaztatu da “Maeztu-Onraitia” izeneko komunikazio zentroa onura publikoko 550 mendiko lurretan eraikita dagoela (Goikobaso izeneko mendia, Erroeta herriarena eta Arabako Onura Publikoko Mendien Katalogoan jaso hura Sustapen Ministerioaren 1909ko maiatzaren 5eko Errege Aginduaren bidez behin betiko onetsi zenez geroztik); Itelazpi SA enpresak ez duela

titulu egokirik aipatutako onura publikoko mendiaren erabilera pribatiboa egiteko, eta oraingo okupazioa eta erabilera bateragarriak direla mendiari emandako onura publikoko helburuarekin (gainazaleko eragina < ehuneko 0,01), betetzen baldin baditu ebazpen proposamenean jasotzen diren baldintzak.

2. Erroetako Administrazio Batzarrak, sarrera data urtarrilaren 9a eta urtarrilaren 29a duten bi idazkitan, zenbait alegazio egin ditu, hau adierazten duelarik:

2.1. Berrito azter daitezela igorpen zentroaren ezaugarriak (dorreaken garaiera, instalatutako elementuak, etab.) eta berrito kalkula dadila batzarrak jasoko duen kanona, oraingo egoera kontuan hartuz.

Alegazio hori kontuan izanik, baita Itelazpi SAK entzunaldiko izapidean emandako erantzunean adierazitakoak ere, memoria tekniko-ekonomikoa idatzi duen enpresak kanonaren beste kalkulu bat egin du, inguruabar berri horiek kontuan hartzen dituen.

2.2. Halaber eskatzen du kontrastatu dadila goi-tentsioko linearen aireko hargunearen luzera, baita haren zortasun eremua ere, kanona kalkulatzeko okupazio azalera moduan adierazten dena zehazteko.

Alde horretatik, kontuan eduki da Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia Garapenaren eta Azpiegituren Arabako Ordezkaritzak eman digun argitasuna, zentroari zerbitzua ematen dion hargune elektrikoaren titularrari buruz: haren goi-tentsio erroldan Itelazpi SA ageri da "Onraita" transformazio zentrorako lineatik (52 zk.ko euskarria) eratorritako 13,2 kVko aireko linea trifasikoaren titular gisa, zeinak 3.086 metroko luzera baitu, haren zati handi bat onura publikoko mendietan zehar igarotzen delarik.

Horren ondorioz, memoria tekniko-ekonomikoa idatzi duen enpresak berrito kalkulatu ditu zentrorako hargune elektrikoaren okupazioak ere.

2.3. Halaber, uste du kanona kalkulatzeko ez direla kontuan hartu Itelazpi eskatutako beste zortasun batzuk, hala nola heltzeko bidearen erabilera eta ibilgailuen maniobra eta aparkamendua.

Kasu honetan, ibilgailuak maniobratzeko eta aparkatzeko eremua bidearen partetzat jotzen da, eta haren erabilera, heltzeko bidea bezalaxe, Mendi Zerbitzuaren txosteneko 8. puntuan (Okupazioaren baldintzak) jasotakotzat, bertan honako hau proposatzen baita:

Zentrora iristeko azpiegitura: bideak jasan ditzakeen erabilerak direla eta, zentrora iristeko bide hori mantentzeko gastuetarako Itelazpi SAK egin beharreko ekarpena, hartaz egiten duen erabileraren proportziokoa izango da. Proportzionaltasun hori mendiaren titularra den erakundearekin adostu eta Mendi Zerbitzu honi jakinarazi beharko zaio 2020an.

3. Arraia-Maeztuko Udalak, sarrera data urtarrilaren 30a duen idazkian, eskatu du erregulizatze prozedura ebazten denean, horren berri eman dakiola interesdun bezala.

Hori dela eta, komenigarritzat jotzen da udala interesduntzat hartzea prozedurako hurrengo izapideetan.

4. Itelazpi, entzunaldiko izapideari erantzuteko bere idazkian (sarrera data urtarrilaren 27a duena), adierazpen hauek egin ditu:

4.1. 2018ko irailaren 13ko idazkian bete zuten zerbitzu taulak, igaro den denborarengatik, aldakuntza batzuk izan ditu, eragina izan dezaketenak kanonaren zenbatekoan.

Horretarako, eranskin eguneratua eman dute, baita oraingo egoerarekin bat datozen planoak ere. Eranskin horretan, dorreak 40 metroko garaiera duela ageri da.

4.2. 2018ko irailaren 12ko idazkian jasotzen diren eskaerak ere aipatu eta erantsi ditu. Hauek dira:

4.2.1. Beharrezkoa da zentroaren benetako okupazioa eta harekin lotura duten zortasunak jasotzea (linea elektrikoa, heltzeko bidea eta ibilgailuen maniobra eta aparkamendua).

Horri buruz, Mendi Zerbitzuaren txostenak (espedienteko 7 zk.ko dokumentuak) jasotzen ditu jada, 7. puntuan, zentroaren okupazioa eta, hartako instalazio nagusien artean, hargune elektrikoa.

Ibilgailuen maniobrari eta aparkamenduari dagokienez, heltzeko bidearen partetzat jotzen dira, eta haren erabilera Mendi Zerbitzuaren txostenak (espedienteko 7 zk.ko dokumentua) bere 8. puntuan (Okupazioaren baldintzak) jasotakotzat. Hartan honako hau proposatzen da:

Zentrora iristeko azpiegitura: bideak jasan ditzakeen erabilerak direla eta, zentrora iristeko bide hori mantentzeko gastuetarako Itelazpi SAk egin beharreko ekarpena, hartaz egiten duen erabileraren proportziokoa izango da. Proportzionaltasun hori mendiaren titularra den erakundearekin adostu eta Mendi Zerbitzuari jakinarazi beharko zaio 2020an.

4.2.2. Okupazioa eta OPko mendiaren titularrak zehazten dituen plano bat eduki behar luke erantsita.

Zentro honen kasuan, okupazioek herri bakar bati eragiten diote, Erroeta herriari alegia. Eta zentroaren okupazioa jasotzen duen plano bat daukagu, Itelazpi bidalia, baita Google Earth-eko irudi bat ere, Gainsa enpresak egin (txostena: "Maeztu-Onraitia" telekomunikazio zentroak onura publikoko 550 zenbakiko mendia okupatzeko kanonaren kalkulua, 2020ko maiatzaren 11koa), mendi katalogatuan zehar igarotzen den linea zatiaren mugaketa ageri duena.

4.2.3. Komenigarria izango litzateke konponketa eta hobekuntza obrak (bai linea elektrikoak, bai heltzeko bideak eta zentroaren berarenak) egin ahal izateko behar diren aldi baterako okupazioak emakida tituluen babespean izatea.

Okupazio emakidaren erregularizazio honek ezin dezake jaso espedientean zehazturik ez dagoen aldi baterako okupaziorik. Itelazpi mendi katalogatuaren aldi baterako okupazioa dakarten hobekuntza eta konponketa obrak egin behar dituen garaian, dagokion eskaera izapidetu beharko du, Mendien Foru Arauaren 24. eta 26. artikuluetan xedatutakoari jarraituz.

4.2.4. Eskatzen du emakida tituluak espreski babestu dezala zuhaitzi zerrenda garbitzea eta heltzeko bideetatik sastrakak kentzea, baita irrati seinaleak jasotzea edo igortzea galaraz edo zaildu lezaketzen zuhaitzak moztea edo inaustea ere.

Aurreko erreklamazioan bezalaxe, mendi katalogatuaren okupazioaren erregularizazio honek ezin dezake barnean hartu espedientean zehazturik ez dauden lanetarako baimenik. Aipatu diren lanetariko edozein egiteko, baimen eskaera egokia izapidetu beharko da, lan haiek hasi baino nahiko denbora lehenago. Okupazio zerrendatik kanpoan, mendiaren jabe den erakundearen baimena ere beharko da lanetarako.

4.2.5. Heltzeko bideen erabilera partekatuari logikaz dagokion bezala, eskatzen dugu konponketa garrantzitsuak proportzionaltasun araubide baten pean egon daitezela, haien erabilerarekin bat etorritik.

Heltzeko bidearen erabilera eta mantentzeari buruzko eskaera hau jasota dago espedienteko 7 zk.ko dokumentuan (Mendi Zerbitzuaren txosteneko 8. puntua, Okupazioaren baldintzak), bertan ondoko hau proposatzen baita:

Zentrora iristeko azpiegitura: bideak jasan ditzakeen erabilerak direla eta, zentrora iristeko bide hori mantentzeko gastuetarako Itelazpi SAk egin beharreko ekarpena, hartaz egiten duen erabileraren proportziokoa izango da. Proportzionaltasun hori mendiaren titularra den erakundearekin adostu eta Mendi Zerbitzu honi jakinarazi beharko zaio 2020an.

5. Kontuan hartu da Foru Kargu Publikoen Jarduna arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauak xedatutakoa eta ikusi da Nekazaritza Saileko foru diputatuari dagokiola espediente hau abiarazteko eta ebazteko eskumena, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak xedatutakoari jarraituz.

Espedientea, aipatutako lege aginduak eta aplikagarri diren gainerakoak ikusirik, Mendien Foru Arauak (11/2007 Foru Araua, martxoaren 26koa) 24.1 artikuluan xedatutakoaren ondorioz dagozkidan ahalmenak erabiliz,

Nekazaritza Sailaren Egitura Organiko eta Funtzionala onetsi zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 14/2016 Foru Dekretuak ematen dizkidan eskumenez baliatuz, eta Arabako Foru Aldundiaren sailen egitura 2019-2023 legealdirako zehazten duen Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren bederatzigarren xedapena aplikatuz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Ebaztea onura publikoko 550 mendian (Goikobaso izenekoa, Erroeta herriarena) kokatua dagoen eta Itelazpi SAK kudeatzen duen telekomunikazio zentroaren okupazioa erregularizatzeko espedientea.

Bigarrena. Honela definitutako okupazioa baimentzea:

- Kokalekua: Arraia-Maetzuko udalerriko 5 poligonoko 802 A eta B katastro lurzatia, onura publikoko 550 mendiaren osagai dena (Goikobaso izeneko mendia, katastro titularra Erroetako Administrazio Batzarra duena).

- Igorpen zentroko instalazioak kokatuak dauden okupazio azalera: 98,32 m², guztira. Hargune elektronikoaren okupazio azalera: 31.589 m² (txostena: "Maetzu-Onraitia" telekomunikazio zentroak onura publikoko 550 zenbakiko mendia okupatzeko kanonaren kalkulua. Gainsa SL, 2020ko maiatzaren 11koa).

- Instalazio nagusiak: komunikazio dorrea, 40 metro garaia, 16 m²ko oinplanoko etxola, elektrindar hargunea, eta perimetroko itxitura.

Hirugarrena. Hauek dira basoko jabari publikoaren erabilera pribatiboko emakidarako proposatzen diren baldintzak:

- Erantzukizun zibila: enpresa esleipendunak izango du instalazioaren ondorioz hirugarrenei egiten zaizkien kalteen gaineko erantzukizun zibila.

- Okupazio epea: hasiera batean 30 urtekoa da, eta gehienez ere 75 urte arte berrizta daiteke, horixe baita toki araubidearen legediak finkatzen duen epea, betiere ematen zaion erabilerak bere hartan jarraitzen badu.

- Zentrora iristeko azpiegitura: bideak jasan ditzakeen erabilerak direla eta, zentrora iristeko bide hori mantentzeko gastuetarako Itelazpi SAK egin beharreko ekarpena, hartaz egiten duen erabileraren proportziokoa izango da. Proportzionaltasun hori mendiaren titularra den erakundearekin adostu eta Mendi Zerbitzu honi jakinarazi beharko zaio 2020an.

- Itelazpi SAK ordaindu beharreko kanona eta haren berrikustea:

Txosten tekniko-ekonomiko honen arabera: "Maetzu-Onraitia" telekomunikazio zentroak onura publikoko 232 zenbakiko mendia okupatzeko kanonaren kalkulua, Gainsa SL enpresak eginga, 2020ko maiatzaren 11koa:

Erroetako Administrazio Batzarrentzat: 6.923,61 euro urtean; haietatik: telekomunikazio zentroaren erabilera pribatiboagatik: 5.344,16 euro urtean.

Linea elektrikoak dakarren basoko demanioaren okupazioagatik: 1.579,45 euro urtean.

Ordainketa hilabeteko epean egin beharko da, onura publikoko mendiaren okupazioaren emakidatik aurrera.

Kanona urtero berrikusiko da, unitateko prezioak, aurreko hamabi hiletako KPIaren arabera eguneratuta, eguneraketaren unean dauden azalera baldintzetara, dorrearen garaierara eta instalatutako elementuetara egokituta aplikatuz, 1 zenbakiko dokumentuan (txosten tekniko ekonomikoa: kanonaren kalkulua "Maetzu-Onraitia" telekomunikazio zentroak onura publikoko 232 zenbakiko mendia okupatzeagatik) adierazitako irizpideen arabera, okupazioa erregularizatzen duen foru agindua aldatuz.

- Urteko txostena. Okupazioaren emakidaren datatik urtealdia bete aurreko 15 egunetan, enpresa emakidadunak txosten bat bidali beharko du elementu instalatuen datuak eguneratuko dituen. Kanonaren urteko berrikuspena egiteko balioko du.

Dorrearen garaiera nahiz okupazio azalera aldatzetik eratorritako eguneratzeak, haiek baimentzen diren unetik aurrera egiten dira.

- Okupazio epea beteta, edo baimena ematearen helburu den erabilera lehenago bukatuta, emakidaren titularrak, urtebeteko epearen barruan, instalazioak guztiz kendu eta eragindako lurak lehengoratu beharko ditu.

Laugarrena. Mendi Zerbitzuak proposatutako okupazio emakidak, mendi publiko katalogatua okupatzeko izapideari dagokionak, ez du salbuesten emakidaduna indarreko araudiak eskatzen dituen beste baimen eta lizentzia guztiak izapidetu beharretik.

Bosgarrena. Foru agindu hau ALHAOn argitaratzea.

Seigarrena. Foru agindu honek administrazio bidea amaitzen du, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegi egokian, bi hilabeteko epean. Horrek ez du eragozten AFari aukerako berraztertze errekurtsua aurkezterik hilabeteko epean, jakinarazpenetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 1a

Nekazaritza Saileko diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

M^a ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE